

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ingurumeneko Departamentuak basoko kudeaketa-planak egiteko 20.000 euroko diru-laguntzetarako deialdia egin du eta agente pribatuei zuzenduta dago

Nafarroako Landa Garapeneko 2014-2020 Planean jasota daude

Ostirala, 2019.eko otsailak 15

Landa Garapena, Ingurumena eta Tokiko Administrazioaren Departamentuak [laguntzak](#) basoko kudeaketa-planak egiteko 20.000 euroko diru-laguntzetarako deialdia egin du eta agente pribatuei — pertsona fisiko zein juridikoei—zuzenduta dago. Diru-laguntza horiek Nafarroako Landa Garapeneko 2014-2020 Planean jasota daude.

Horrela dio gaur (ostirala), otsailak 15, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu den Eva García Balagueren Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiaren ebazpenak [ebazpena](#).

Deialdi honek xede du basoko azalera modu iraunkorrean kudeatzea eta jabetza pribatu ezberdinen lotura eta kooperazioa sustatzea; basoko birpopulaketa eta basolanak erraztea basoko bideak eraiki eta mantentzearen bidez, eta aisialdian beste balio batzuk bultzatzea, horien artean babes bereziko zonetan dauden habitatak mantentzea.

Basoko antolamenduak Nafarroako baso-sistemak hobetzea eta haien iraunkortasuna bermatzea du xede, horrek dakartzan zuzeneko zein zeharkako onurekin. Eta, horrez gain, biztanleria landatarra indartzea eta lanpostuak sortzea, basoko suteak prebenitzea, higaduraren kontra borroka egitea, material berriagarriak erabiltzea (egurra kasu) eta energia-mendekotasuna gutxitzea.

Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 15ean amaitzen da.